

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Eskubide Sozialetako departamentuak 62.201,38 euro bideratuko ditu desgaitasuna duten pertsonen oporren programetarako

Nafarroako Gobernuak deialdia berreskuratu du 2018an, pertsona horien integrazioa eta independentzia errazteko asmoz

Astelehena, 2018.eko urriak 8

Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako departamentuak desgaitasuna duten pertsonen arloko gizarte-ekimeneko entitateei opor-programak garatzen laguntzeko dirulaguntza-programa onartu du. Honela, Gobernuak, aurreko legealdian desagertu zen (azken deialdia 2011n argitaratu zen) deialdia berreskuratu du, 62.201,38 euroko diru-hornidura tarteko, desgaitasuna duten pertsonen integrazioa eta bizimodu independentea errazteko asmoz.

Gaur [Nafarroako Aldizkari Ofizialean](#) argitaratutako deialdi honen helburua, desgaitasuna duten pertsonen autonomia pertsonala sustatu eta mendekotasuna prebenitzen diharduten gizarte-ekimeneko entitateek antolatutako opor-programak kofinantzatzea da. Eskaerak aurkezteko epea azaroaren 7an bukatuko da.

Honela, desgaitasuna duten pertsonen bizitza independentea eta ahalik eta integrazio pertsonal eta sozialik handiena erraztu nahi da, ahalik eta txandarik normalizatuenak eginez eta irisgarritasunari dagozkion baldintzarik egokienetan, pertsona horiek aisialdi eta kultura arloko ondasunez baliatzeko aukera izan dezaten, senide nahiz zaintzaileen atsedena errazteaz gain.

Aldi berean, programek taldeen formakuntza eta taldekideen arteko lankidetzak bultzatuko dituzte, partaideen gaitasun sozialen nahiz integrazioaren garapena sustatzeko xedez.